FAMILIEN TXOKOA: 0-3 Bitarteko haurrentzat eta gurasoentzat

Aldaketa handiak gertatzen dira bai haurrengan, eta bai familiengan ere haurra jaio eta lehenengo urteetan. Haurrentzat oso garai garrantzitsua eta sentikorra da, etorkizunerako oinarriak ezartzen baitira garai horretan.

Gurasoentzat aldiz, ez da beti erraza izaten, garai preziatu honi nahi bezala erantzutea. Kezkak, egonezina, zalantzak eta gora- behera emozional handiak gertatzen baitira. Gainera egungo jendarteak ez ditu zaintza- lanak lehenesten, eta dagokien garrantzia aitortzen. Horrela, kosta egiten da denbora eta patxada hartzea haurrekin gustura egoteko. Askotan trapezista lana bilakatzen da familientzat, enplegua, etxeko-lanak, eta zaintza lanak, (nahiz txikienena, nahiz gure buruena) bateragarri egitea.

Gainera, zailtasunak askotan familien intimitatean geratzen dira bakardade sentsazioa nagusitzen delarik.

Eskualdeko adin txikikoen babes sareak, horretaz jabeturik, ahal den neurrian familiei laguntza eta babesa ematekoa asmoz proposamen hauxe luzatu digu familiei.

Gizarte zerbitzuak, Osasun-etxeak eta udal-haurreskolak elkarlanean, espazio egokitua eskaintzeko ahalegina egin dugu, adin tarte horretan dauden haurrak dituzten familiei. Batzuen eta besteen esperientzietan oinarrituaz, elkarri laguntzeko, eta solasean nahiz jolasean parte hartzeko.

Espazio hau harrera lekua izatea nahi dugu, juiziorik eta klase magistralik gabekoa. Gurasoak eta hezkuntzako profesionalak, haur txikien heltze prozesu horretan bidelagun garelarik, elkarri laguntzeko leku bat ezarri nahi izan dugu, haurren hazkuntza eta hezkuntza horri laguntza , egoki eta ahal den modu osasungarrienean eskaintzeko.

Bi ildo ezberdin lantzen saiatzeko asmoz hasi gara. Alde batetik guraso eta haurren arteko harremana sustatzekoa, beraiekin egoteko eta ongi pasatzeko tartetxo bat hartuaz, masajea, kanta eta jolasaren bidez.

Bestetik, erreflexiorako gunea izatea ere nahi genuke, beti ere, haurrei adin horretan gertatzen ari zaiena ulertzen saiatuaz eta helduok ere gure jarrerei buruz gogoeta egiteko. Dakigun horretatik, enpatiaz, haurrari bere lorpen eta zailtasunetan laguntzeko asmoz abiatu gara.

Gainera, iruditzen zagu baliagarri izango zaigula norberaren barruak hustutzea, zalantzak konpartitzea, taldearen babesa sentitzea e.a.

Eskaintza hau eskualdeko lau herrietara zabaldu nahi dugu, horregatik talde ezberdinak burutzeko eskaintza luzatu dugu behar bai Leitzan eta bai Goziuetan.

Deialdiak berehalako erantzuna izan du, eta talde guztiak bete egin dira, Leitzako kasuan, 2014 eta 2015ean jaiotako haurren taldean 24familik izena eman dute.

Goizuetako kasuan ,talde bakarra osatu da 0 eta 3 urte bitarteko haurrak dituzten familia guztiak elkarrekin biltzen dira. Leitzan berriz bi talde ezberdin sortu dira, bat 2014 eta 2015ean jaiotako haurrentzat eta beste bat 2016 eta 2017an jaiotakoentzat.

Leitzako taldeak Itzaire, udal haur-eskolan elkartzen hasi dira. Otsailean hasi zuten ibilbidea, Goizuetakoak berriz, martxoan hasi dira eta horrela jarraituko dugu ekainera bitartean. Talde bakoitzak bere dinamika, ordutegi eta maiztasuna du, batzuk hamabostean behin elkartzen dira eta besteak hilabetean behin; saio guztiek ordu eta erdiko iraupena dute.

Gurasoak haurrekin batera etortzen dira . Saioetan bertan adosten ditugu familientzat lehentasunezkoak diren gaiak, eta konpartitu nahi dituzten bizipenak.

Lehenengo saioak harremana egin, eta familien nahiak, espektatibak, nahiz intereseko gaiak jasotzeko izan diren arren (beraz hitzezkoak). Beste saioetan hitza eta jolasa, behaketa ,eta erreflexioa, ere erabiltzeko asmoa dugu. Jolasa, haurrek elkarren artean jolasteko , nahiz gurasoak haurrekin

eta haurrentzat jolasteko, beraiekin plazerezko tarte bat konpartitzeko. Eta hitza, haurren artean gertatzen diren gatazka txikiei hitza jartzeko, ulertzen saiatzeko. Saioan gertatzen dena espazio honetan geratzea nahi dugu familiei intimitatea eta konfidantza giroa eskaintzeko.

Egitasmoa abiatu dugu, gogoz hasi gara lanean, helburuak hortxe daude eta orain jardunak erakutsiko digu bidea.